



ADENDA: EUSKO JAURLARITZAREN ETA EUSKAL HERRIKO GAINERAKO ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANARI BURUZKO TXOSTENA; ETA ARABA, GIPUZKOA ETA BIZKAIAREN ETA EUSKAL HERRIKO GAINERAKO LURRALDEEN ARTEKO HARREMANARI BURUZKO TXOSTENA.



Eusko Legebiltzarrean, autogobernuari buruzko ponentzia bat sortu zen, 2014ko ekainaren 11n, eta hala jasotzen da Legebiltzarrerako presidenteak aipatu egunean egindako idazkian. Ponentzia horrek Eusko Jaurlaritzari eskatu dizkion txostenen artean, 4 eta 5 zenbakiak dituztenak daude: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaren eta Euskal Herriko gainerako lurraldeen arteko harremanei buruzkoa eta Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Herriko gainerako erakundeen arteko harremanei buruzkoa, hurrenez hurren.

Eusko Jaurlaritzak "*Mugaz gaindiko Lankidetzeta Europan*" gaiari buruz egindako txostenean, batera erantzuten zaie eskaera haiei, betiere, lankidetzeta-tresna bakoitzean nazioarteko muga bat baldin badago lankidetzan ari direnen artean, edozein dela ere sinatzen dutenen kopurua eta izaera.

Esandakoagatik, Eusko Legebiltzarraren Autogobernu Ponentziak eskatutako eremu bat erantzunik gabe geratzen da *Mugaz gaindiko Lankidetzeta Europan* txostenean. Hauxe, hain zuzen ere: lurralde historikoetako instituzioek Nafarroako Foru Komunitatearekin izandako lankidetzeta eta Eusko Jaurlaritzak foru-komunitate horrekin izandakoa.

ADENDA honetan, hutsune horri erantzungo zaio, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Foru Komunitateak —zuzenbide pribatuko tresnez harago edo protokoloakoaz harago edo asmo-adierazpeneko elkarlanaz harago— elkarrekin izan duten zuzenbide publikoko hitzarmen bidezko lankidetzeta nahitaezkoari dagokionez. Erantzun gabe utziko dira, ordea, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Historikoen aipatu foru-komunitatearekin egindakoa; izan ere, horiek, norik bere xedatze-eremuan, askatasun instituzional osoa daukate jarduera horretarako, eta, ondorioz, ez diote konturik eman behar Eusko Jaurlaritzari.

Horiek horrela, arreta Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko harreman instituzionaletan jarrita, lehenik eta behin adierazi behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoaren funtsezko esparru juridikoa Espainiako Konstituzioaren 145. artikuluan jasotzen dela. Hau esaten da artikulua horretan:

145. artikulua

- 1. Ez da inola ere onartuko autonomia-erkidegoen arteko federaziorik.*
- 2. Estatutuek ezar dezakete zein kasu, betekizun eta modu bete behar den, autonomia-erkidegoek elkarrekin hitzarmenak egin ditzaten, berezko dituzten zerbitzuak kudeatu eta egiteko; estatutuek ezar dezakete, berebat, nolako izaera eta ondoreak izango dituen Gorte Nagusiei egin beharreko komunikazioak.*



Bestelako kasuetan, Gorte Nagusien baimena izan beharko da, autonomia-erkidegoen artean lankidetzak-hitzarmenak sinatzeko.

Euskadiko Estatutuaren 22.2 artikuluan, bestalde, hau esaten da:

22. artikulua.

2. Autonomia Erkidegoak hitzarmenak egin ditzake beste foru-lurralde historiko batekin beren eskumeneko gaiak buruzko zerbitzu propioak kudeatu eta emateko, Gorte Nagusiei jakinarazi behar zaiela. Jakinarazpena egin eta hogeigarren egunean sartuko dira indarrean hitzarmenak.

3. Autonomia Erkidegoak lankidetzak-akordioak ere egin ditzake beste autonomia-erkidegoekin Gorte Nagusien aldeko baimenarekin.

Lankidetzak eta elkarlan horizontaleko hitzarmen-jarduera "autonomia-erkidegoen arteko akordio edo hitzarmenen bidez egiten da; eta horiek egituratzen dute lankidetzaren printzipio beharrezkoa, zeina Autonomia Estatuaren mamian baitago, Epaitegi honek behin eta berriz aldarrikatu duenez —KAE: 146/1992—" (KAE 132/1996, 4. OJ); hitzarmen-jarduera horren konstituzio- eta estatutu-erregulazio horren gauzarik garrantzitsuenak hau da: "ez da zabaltzen sailkapen juridiko hori merezi ez duten kasuetara; esan nahi baita, baterako asmo-adierazpenetara edo eduki loteslerik gabeko asmoetara edo jarraibideen nahiz jarduerak-ildoen azalpen hutsera". (KAE: 44/1986, 3. OJ); halaber, "ez da haien artean hitzarmenak ezartzeko gaikuntza ematen dien agindu bat, baizik eta gaitasun hori badutela suposatuta, arlo honetako erregulazioak bete behar dituen betekizunak mugatzen ditu edukiaren bidez, eta Gorte Nagusiek lankidetzak-akordio edo -hitzarmenekiko izan behar duten kontrola ezartzen du" (KAE: 44/1986, 2. OJ). Eta, horretaz gainera, Estatuak ezin du erregulaziorik eman bere konstituzio-eskumenen indarrez (eskumen horiek eskusiboak edo oinarritzkoak izan), ezta elkarlana instrumentalki antolatuta egonda ere pertsonifikazio juridiko batzuen bidez (esate baterako, autonomien arteko partzuergo bidez). Hala adierazi berri du Estatu Kontseiluak 274/2015 txostenean (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen aurreproiektuari buruzko txostena).

Figura biak bereiztea ere garrantzitsua da. Izan ere, zerbitzu propioak kudeatzeko eta emateko Nafarroako Foru Komunitatearekin egiten diren hitzarmenetan —zuzenbide objektiboa berritzen ez dutenetan—, autonomia-estatutuetara jotzen da Gorte Nagusiekiko komunikazioaren izaera eta ondoreak zehazteko. Eta Euskadiko Estatutuaren kasuan, hau esaten da: *Jakinarazpena egin eta hogeigarren egunean sartuko dira indarrean hitzarmenak*. Aldiz, lankidetzak-akordioetarako —hitzarmenen aldean askoz eduki gutxiagorekin, nahiz eta biek ondorio juridikoak dakartzaten alderdientzat—, *beharrezkoa da Gorte Nagusiek baimena ematea aldeko aurretik*.



Lankidetzak-akordioen edukiari dagokionez, nagusi den doktrina juridikoaren ustez, funtzio edo jardura administratibo gisa hartzen diren zerbitzuak kudeatu eta ematea baino garrantzi handiagoko itunak dira, baina ezin dira iritsi "maila politikoan aliantza iraunkorrak egitera hainbat autonomia-erkidegoren artean ... autonomien eta estatuen arteko maila bat edo hirugarren instantzia bat sortuz, edo bloke autonomikoak sortuz (guztiak, Eliseo Aja); edo, bestela esanda, eragotzi egiten du "politika- eta lurralde-oreka a latere aldatzea autonomia-erkidegoren artean eta Estatuarekin; autonomia erkidegoak elkarren aurka jartzea ekar dezaketen bloke politikoak eratzea, bateraezinak baitira eskualdeen arteko elkartasun eta leialtasunarekin edo interes nazionalarekin; eta eskumen propioak beste erkidego batean edo instituzio komunitan uztea" (Rodríguez-Zapata), "autonomiako parlamentuaz eta gobernuaz besteko kanpo zuzendaritza politikoko zentroak sortuz" (Gonzalez García).

Erregimen juridikoari dagokionez ere, baliozkotasuna eta eraginkortasuna kontuan hartuta, garrantzitsua da figura bien arteko bereizketa: desberdin tramitatzen direlako Gorte Nagusietan eta tramitea zuzen ez egiteak ere ondorio desberdinak dituelako; izan ere, erabakitakoa deuseztatzea ekarriko luke baimenaren tramitea ez egiteak, haren baliozkotasunari eragingo bailioke; aldiz, komunikazio eza (eraginkortasun-akatsa) zuzendu egin liteke, egindako jardura egin gabeko komunikazioaren aurreko unera atzera-eraginez. Hala ere, aipatu epaiaren 4. oinarri juridikoan Konstituzio Auzitegiak adierazten duenez, "deuseztasuna deklaratzek ez du eragotzen, noski, autonomia-erkidego biek, Konstituzioan eta estatutuetan jasotako betekizunak betez gero, egokitzat jotzen dituzten akordioak sina ditzaten edo orain baliogabetzen dena berriz egin dezaten."

Azaldutako esparru horretan, hona hemen Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartutako hitzarmenak, zeinetan parte izan baitira, gutxienez, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Foru Komunitatea:

1988. urtea:

- Hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artekoa, osasun-programak garatu eta gauzatzeko lankidetzari buruzkoa.

1994. urtea:

- Lankidetzak-hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artekoa, industria hondakinen kudeaketarako.

1996. urtea:

- Hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatearekin, Euskal Irrati Telebistaren (EITB) zerbitzuak Nafarroan hartzeari buruzkoa.



- Lankidetzak-akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artekoa.

- Lankidetzak-hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatearekin eta Errioxako Autonomia Erkidegoarekin, "Errioxa" jatorri-deitura kalifikatuari buruzkoa.

2002. urtea:

- Lankidetzak-hitzarmena, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, Osakidetzarekin, EJI Ekin, Euskaltel SAekin, Sarenet SAekin eta Ibercom SAekin, EuskoNIX komunikazioen puntu neutroa eratzeko.

- Lankidetzak-protokoloa, Donejakue Bidean turismoa garatu eta sustatzeko eta hari dagokion 2002ko jarduketa-plana, Turespañarekin, Aragoiko Gobernuarekin, Asturiasko Printzerriarekin, S. R. de Turismo de Cantabria eta S. P. del Turismo de Castilla y León sozietateekin, Galiziako Xuntarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Errioxako Gobernuarekin. 2003/00763 Donejakue Bidean turismoa garatu eta sustatzeko lankidetzak-protokoloaren 2003ko jarduketa-plana, Turespañarekin, Aragoiko Gobernuarekin, Asturiasko Printzerriarekin, S. R. de Turismo de Cantabria eta S. P. del Turismo de Castilla y León sozietateekin, Galiziako Xuntarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Errioxako Gobernuarekin, nazioarteko publizitate-kanpaina bat egiteko. 2004/00179 - Donejakue Bidean turismoa garatu eta sustatzeko lankidetzak-protokoloaren 2004ko jarduketa-plana; alde batetik, Turespañak eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin, Aragoiko Gobernuarekin, Asturiasko Printzerriarekin, S. R. de Turismo de Cantabria eta S. P. del Turismo de Castilla y León sozietateekin, Galiziako Xuntarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Errioxako Gobernuarekin egina.

2008. urtea:

- Lankidetzak-hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatearekin, zenbait elementu eta aplikazio informatikoren erabilpena lagatzeko.

2009. urtea:

- Hitzarmena, Justizia Ministerioaren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren eta Euskadiko, Kataluniako, Galiziako, Valentziako, Kanarietako, Andaluziako eta Nafarroako autonomia-erkidegoen artekoa, Justizia Administrazioaren arloan Interoperabilitate eta Segurtasuneko Eskema Judizialaren hitzarmenarekin bat egiteko.

2010. urtea:

- Lankidetzak-esparru-akordioa, Zarata eta dardaren gaiari buruz interes orokorreko arlo zientifiko eta teknikoan alorrean EAEko Administrazioak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak sinatutakoa.



- Lankidetz hitzarmena, alde batetik, Nafarroako Gobernuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundiekin, eta, bestetik, Euskaltzaindiarekin.
- Lankidetz protokoloa, Sustapen Ministerioarekin eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin, Kantauri aldeko eta Mediterraneoaren arteko prestazio handiko trenbide-korridorearen proiektuaren barruan euskal y-aren Iruñeko konexioari buruzko informazio-azterlana elkarrekin zuzentzeari buruzkoa.

2012. urtea:

- Lankidetz hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitateko Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuarekin, euskarari dagozkion alderdi jakin batzuetan lankidetz bultzatzeko.
- Hitzarmena, Espainiako iparraldeko autonomia erkidegoek sinatutakoa, eremu geografiko mugakideetan biktima anitzeko gertakariak kudeatzeko (Euskadi, Errioxa, Asturias, Gaztela eta Leon, Kantabria eta Aragoiko autonomia erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitatea).

2014. urtea:

- Lankidetz protokoloa, Nafarroako Gobernuarekin, polizia-jardueraren gaineko esperientzia eta informazio trukatzeko.
- Nafarroako Foru Komunitatearekiko hitzarmena, osasun-laguntzaren arlokoa.

2015. urtea:

- - Nafarroako Foru Komunitatearekiko hitzarmena, osasun-laguntzaren arlokoa.